

Irailaren 24an abiatuko da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa

Iruñeko Nafarroa Arenan izango da aurten Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala, abenduaren 18an

DN Iruñea

Bertsozale Elkarteak jakitera eman duenez, Bertsolari Txapelketa Nagusiaren 18. edizioa irailaren 24an hasi eta abendua-

ren 18an amaituko da. Getxon abiatuko da, eta lehenengo aldiz, Iruñeko Nafarroa Arenan jokatu da finala. Aurten 42 bertso-larik hartuko dute parte, horietatik bost nafarrak: Eneko Lazkoz, Joanes Illarregi, Julio Soto, Saioa Alkaiza eta Xabier Silveira.

Sei saio izango dira lehen fasean: irailaren 24an hasita, bina saio jokatu dira astebururo. Zazpi finalurreko izango dira jarraian: asteburuko saio bat jokatu da, larunbatero, zehazki. Pandemiak eraginda, azken Txapelketa Nagusitik bost urtera

egingo da datorren hau, Bertsozale Elkarteak antolatzen duen hamargarrena.

Azken urteotan, ahalegin handia egin du Bertsozale Elkarteak tokian tokiko antolatzaileekin, bertso-eskolekin eta sortzaileekin beraiekin batera plaza biziberritzeko: "Egoerak hobera egin du, eta horrek poza ematen du. Dena den, bertso plazaren martxa arretaz segitzen dugu; batetik, pandemiak utzitako ondorioak oraindik ere ez direlako guztiz desagertu, eta, bestetik, bertsozalaritzaren egungo egoera

bertan islatzen delako", azaldu zuen Gontzal Agotek Bilbon egindako aurkezpenean. Izan ere, Bertsozale Elkarteak plazaren irakurketa egin du aldian-aldian, eta datu onak dira azken hilabeteetakoak.

"Azken urteetan gertatutakoak gertatuta ere, argi esan dezakegu bertsozalaritza oso bizi dagoela euskararen lurralde osoan zehar", jarraitu zuen Idoia Trenorrek. "Garrantzitsua da bizitasun hori nondik datorren azaltzea. Txapelketa ez da ekintza isolatu bat, txikitik, egunero-

koan eta ahalegin handiz egunero egiten den lanaren ondorioa da", erantsi zuen. Hezkuntzan, ikerkuntzan nahiz plazan egiten den lana azpimarratu zituen, sei Bertsozale Elkarteetan, Lanku Kultur Zerbitzuen eta Xenpelar Dokumentazio Zentroaren eskutik.

Egun osoko finala

Txapelketaren finalari dagokionez, zortzi bertsozari ariko dira kantuan: 2017ko txapelduna (Maialen Lujanbio) eta finalurrekoetatik puntuazioz sailkatuko diren zazpiak. Hiru saiotan banatuko da ekitaldia: goizean (11:00tik aurrera), zortzi bertsozariak jardungo dira eta zortzi bertsozariekin emango zaio hasiera arratsaldeko jardunari ere. Azkenean, puntu gehien metatu duten bi bertsozarien arteko buruzburuko jokatu da.

ZEHATZ-MEHATZ

SAIOAK. Getxon, Arrasaten, Gotaine-Irabarnen, Gasteizen, Donostian, Lizarran, Elizondon, Donibane Garazin, Irunen, Durangon, Amurrioren, Baionan, Bilbon eta Iruñean izango dira 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko saioak.

SARRERAK. www.bertsosarre-rak.eus atarian jarri dira salgai sarrera guztiak. Nafarroako Bertsozale Elkartearen egoitzan finalerako sarrerak saltzeko leihatila zerbitzua eskainiko da, 10:00-14:00 eta 16:00-18:00 bitarte, ekainaren 30era arte, asteburuan salbu. Halaber, egun horietan finalerako sarrera bermatuta izango dute Bertsozale Elkarteak bazkideek.

BERTSOLARI NAFARRAK. Eneko Lazkoz, Joanes Illarregi, Julio Soto, Saioa Alkaiza eta Xabier Silveira arituko dira.



Lurralde guztietako bertsozale elkarteak bildu ziren Txapelketaren aurkezpenean, pasa den asteazkenean Bilbon.

BERTSOZALE ELKARTEA